

205. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Trantsizio energetikorako
pausoak**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

Elkarrietzeta	3
Trantsizio energetikoa	6
Energia kontsumoa datutan	8
Energia murriztu eta sortzeko proiektuak.....	10
Energia sortzetik gero eta gertuago	12
Laburrean	14

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



“Azpeitia hasi da transizio energetikoaren bidea egiten”

Nagore Alkorta
Azpeitiko alkatea

Energiaren arloan neurriak “ezinbestean” hartu behar direla argi du Nagore Alkorta Azpeitiko alkatea. Eta trantsizio energetikoa ahalbidetu, kontsumoa gutxitu, energia berriztagarrien alde egin eta demokratizatzeko bide eman behar duela uste du. Horretarako eredu energetiko komunitario berriak sortu behar dira, besteak beste. Horretarako lanketan ari da Azpeitiko Udala.

Udalak ez du eskumenik proiektu eoliko bat egiteko baimena eman edo ez erabakitzeke

Gai konplexua da energiarena. Trantsizio energetikoa ezinbestean egin beharrekoa da, ezta?

Gaia ondo kokatzea garrantzitsua da. Larrialdi klimatikoan gaude eta energiarekin arazo larri bat daukagu, gizarte moduan erantzun behar dioguna. Bizi dugun arazo errealaz jabetu behar gara. Lurra gradu bat berotu da jada, eta hori ingurumen kalte izugarriak eragitearekin batera, biodibertsitate galera izugarria eragiten ari da. Berotze efektuko gasak isurtzeari utzi eta dinamika hau aldatzen ez badugu, ondorio oso larriak jasango ditugu.

Argi dago, berotze horren eragile nagusia egungo energia kontsumoa, erregai fosiletan oinarrituriko eredua dela. Egungo energia sistemak ingumen kalte izugarriak eragiteaz gain, ondorio ekonomiko eta sozial handiak ditu. Prezioen gorakadak, elektrika handien irabaziak hazten dituen bitartean herritarrok pobrego egiten gaitu. Herriko hainbat ostalari, merkatari edota enpresentzat arazo bihurtu da energiaren prezioa. Udala azpeitiarren arazoak konpontzeko dagoela ulertzen dugu eta guk herritarren interesak defendatuko ditugu. Herritarren arazoen aurrean ezin dugu bestaldera begiratu, eta energairen kasuan ere, ditugun arazoak konpontzeko ahalegin horretan egon daitezkeen aukera desberdinak aztertzea dagokigu.

Energiaren kontsumoa jeitsi behar dela esaten da...

Bai, noski. Kontsumoa halabearrez jaitsi behar dugu. Baina, kontsumoa jaitea soilik ez da nahikoa, erregai fosilak berriztagarriengatik ordezkatzeko ere ezinbestekoa da. Ez da lehenik bat eta gero bestea. Biak egin behar dira. Biek osatzen dutelako arazoaren soluzioa.

Maila eta eskala guztietatik eragin beharko da. Maila pertsonalean bezala gizarte moduan. Herri mailan bezala, nazio edota mundu mailako eskalan. Arlo eta politika ezberdinen aldaketa eraginkor bat eskatzen du honek guztiak, elikadura, mugikortasuna edota bestelako hainbat politiketan eman beharreko aldaketa handi baten aurrean gaude. Erregai fosilak erabiltzeari uztea beste aukerarik ez dago. Baina, ezin gara zain egon. Izan ere, energiaren arazoari aurre hartzen dion herria herri aurreratua izango da. Eta pozik gaude Azpeitia lehen pausoak ematen ari delako.

Energiaren arazoari aurre hartzen dion herria herri aurreratua izango da

Trantsizio energetikoa berriztagarriekin baina demokratikoa izan behar duela diozue, ezta?

Geure burua amildegi batetik bota nahi ez badugu, erregai fosilak, zehazki gasa eta petrolioaren erabiltzeari utzi behar diogu eta energia kontsumoa jaitsi behar dugu. Horretarako ezinbestekoa da berriztagarrien aldeko apustu sendoa egitea. Eta, gaur gaurkoz, ezagutzen diren teknologia garbienak fotovoltaikoa, eolikoa, hidrologikoa edota biomasa dira, besteak beste.

Gaur egun, daukagun menpekotasun maila energiaren alorrean bizi dugun injustiziaren tamainakoa da, izugarria. Eta, beraz, ekin behar diogu energia sortzeari. Haizea, eguzkia eta ura herri ondasunak dira; herri moduan baliatu behar ditugu energia eta aberastasuna sortzeko. Azpeitia hasi da trantsizio energetikoaren bidea egiten, herriko 500 familiarekin eta Ekindar kooperatibaren bitartez. Baina, ezin gara horretan gelditu, parean dugun erronka handiagoa da eta aukera gehiago aztertu behar ditugu.

Eoliken gaiak eztabaida sortu du...

Normala da. Egitasmoa burutzen bada, izan dezakeen inpaktuak kezka sortzen du. Kezka sortzen digu. Arau markoa ere oso zaharkitua dago, eta trantsiziorako behar beharrekoa den ikuspegi orokor bat, estrategia orokor bat ez egoteak ere ez du laguntzen.

Kontuz tratatu beharreko gaia da, ezin da gaia hartu bihar gauzatuko balitz bezala, edozein kasutan luze joko du, zehaztapen asko falta dira, eta aldagai ezberdinek proiektua bertan behera utzi dezakete.



Daukagun informazioarekin bakarrik, azkarregi da alde edo kontra egoteko. Proiektua definitzen doan heinean joango dira gauzak argitzen, eta guk, orain artean, aztertzeke prest gaudela soilik adierazi dugu.

Energia eolikoaren proiektuetan zein da udalen eskumena?

Udalak ez du eskumenik halako proiektu bat egiteko baimena eman edo ez erabakitzeke. Horrelako proiektuek udalaz gaindi, Eusko Jaurlaritzan eta Aldundian tramitatzen dituzte baimen eta betebeharrak guztiak.

Gaur egun, 2002an onartutako Lurralde Plan Sektoriala dago indarrean. Hor zehazten dira energia berriztagarriak ezartzeko irizpide eta gidalerroak. Baina, oso zaharkiturik dago. Legebiltzarrak 2019an onartu zuen jasangarritasun energetikoaren legea, eta horren arabera, Antolaketa Sektorial berriak iaztik indarrean egon behar zuen. Plan hori erabakigarria izan daiteke hemen planteatzen diren instalazio eolikoaren egingarriak diren edo ez jakiteko.

Ekindar kooperatiba eratu da. Pauso garrantzitsua da trantsizioaren bidean.

Ekindar pauso garrantzitsua da Azpeitiaren etorkizunerako, estrategikoa. Erakunde publikoekin elkarlanean energia komunitateak sortzeko egin daitekeen ibilbidearen adierazle da. 526 familiak jarri dute beren konfiantza Ekindarren, eta eskertzekoa da proiektuak izan duen babesa. Urrian kooperatiba sortu eta Kontseilu Erretorea osatu da, eta uste dut Azpeitiaren energiaren arazoari erantzuteko tresna eraginkorra sortu duela.

Orain, epe motzean eguzki-plaken proiektua gauzatzeko obrak hasiko dira. Eta laister, geuk sortutako elektrizitate garbia kontsumitzen hasiko gara kostu prezioan, gaur egungo merkatuan baino prezio juxtuagoan. Honek guztiak, pauso garrantzitsu bat izateaz gain, ibilbide emankor baten lehen pausoa izan nahi du. Ekindar, herritarren sentsibilizazioan eragiteko eta energia sorkuntzarako proiektu berriak aztertu eta gauzatzeko tresna izateko asmoarekin sortu da.



Trantsizio energetikoan ezinbestean egin beharreko pausoa

Munduak ezin dio eutsi gizakion energia kontsumo zoroari. Erregai fosilen alde egindako apustuak mundua eta bere baliabide naturalak ahitzera garamatza.

Gizakien egunerokoak etengabe itotzen du mundua. Dela petroleoa, dela gasa edo dena delakoaren kontsumoa etengabekoa da; eta sortu arazoaren aurrean beste aldera begiratuz jarraitzen du gizakiak.

Klima-larrialdi egoera deklaratuta dago, eta ezer egin ezean, atzera itzulerarik gabeko kaltea izango da ingurumenean. Klima krisialdiari gaur egun bizi dugun energia krisia gaineratu behar zaio.

Krisi horrek energiarekin dugun menpekotasun ikaragarria azaleratzeaz gain, energia sortzen duten herrialde eta multinazionalekin duguna ere plazaratu du.

Temperatura globalaren igotzen ari da. Planetaren temperatura 1,2 gradu igo da eta ezer egin ezean 3 gradura igoko da 2050erako. Gaurtik atmosferara egiten ditugun ixuriak gutxitzeko neurriak hartzen hasita ere, 1,5 gradura iritsiko da 2030.urterako.

Planeta bi gradu berotzen bada, eragindako kalteak ez duela atzera bueltarik aurreikusia dute adituek.



TRANTSIZIOA BERRIZTAGARRIA DEMOKRATIKOA



KONTSUMOA MURRIZTU

Krisi energetikoak agerian utzi du energiaren dependentzia. Beraz, arazoaren irtenbidea sistema errotik aldatzea eskatzen du. Ezinbestean, gasaren, petroleoaren eta elektrizitatearen kontsumoa murriztu behar da.

Horretarako, energia politikak ez ezik, beste hainbat politika orokor ere aldatzea ekarri beharko du: Mugikortasun politikak, KM0-ko elikadura politikak sustatzea eta eredu ekonomikoa bera aldatza, besteak beste.

ENERGIA BERRIZTAGARRIA

Larrialdi guzti horien oinarrietako bat energiarena da. Energia kontsumo ikaragarriak eta gaur egungo energia modeloak, erregai fosilen erabilerak, eragin zuzena dute guzti horretan. Beraz, errotik aldatu beharrekoa arloa da energiarena. Energia gutxitzea ezinbestekoa da. Horretaz gain, erregai fosilen erabilerarekin hautsi eta energia berriztagarrietarako trantsizioari heldu egin behar zaio. Energia garbiena, berriztagarria da eta gaur egun, energia berriztagarrien arloan ura, eguzkia eta haizea erabiltzen dituzten teknologiak daude garatuta.

SORKUNTZA DEMOKRATIKOA

Trantsizio energetikoa berriztagarria izateaz gain, demokratikoa izan behar du. Gaur egun, energia enpresa handien esku dago energiaren merkatu ia osoa. Eredu horrek enpresa handiak aberastea eta herritarrak pobretzea dakar. Horren adierazle da azken hilabeteotan energiaren prezioen ezegonkortasuna eta gehiegizko prezioak.

Eredu horrekin bukatzeko energia berriztagarrien auzian herritarrak, tokiko erakunde zein enpresek beren energiaren sortzaile izan behra dute. Baliabide naturalak publikoak eta herritar ororenak izanik, onuradun ere izan behar dute. Horregatik, tokiko komunitate energetikoak sortzea ezinbestekoa izango da, erabiltzen den teknologia erabiltzen dela ere.

Gasaren, petroleoaren eta elektrizitatearen kontsumoa murriztu egin behar da

Energia kontsumoa datutan

Azken aldian, energia herritarren artean hizketa-gai da. Kontsumoa dela, prezioa dela, jatorria dela... Baina zenbat eta nondik eratorritako energia kontsumitzen dugu Euskal Herrian, eskualdean eta Azpeitian? Zenbat sortzen dugu EAEn bertan, zenbat erosten dugu kanpotik? Eta zein jatorritako energia erabiltzen dugu egunerokoa?


ENERGIA DATU OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoan 57.254GWh/urteko energia kontsumitzen da, batez beste. Energia hori jatorri desberdinetakoa da. %40a gasa da, %26a petrolioa, %25a elektrikoa eta %9a beste jatorri batekoa.



EAEko kontsumo orokorra

57.254 GWh/urte



ENERGIA ELEKTRIKOAREN JATORRIA

EAEko elektrizitate kontsumo maila oso altua da, besteak beste, industria elektointentsiboa delako.

Kontsumitzen den energia elektrikoaren erdia soilik sortzen da bertan. Beste guztia kanpotik ekartzen da. Eta bi menpekotasun argi sortzen dira; batetik, beste estatuekiko dependentzia, eta bestetik, bertako enpresa multinazional elektrikoekiko menpekotasuna.


Energiaren izaerari begiratuz gero, %6,8 da berriztagarria bertan sorturiko energia elektrikoaren kasuan, kanpotik ekarritako energia elektrikoaren kasuan %25 ingurura iristen da datu hori. Kontsumitzen den energia elektriko gehien-gehiena erregai fosiletatik dator, beraz, tartean baita energia nuklearretik sortutakoa ere. Guzti horrek, ondorio ekologiko, ekonomiko eta sozialak sortzen ditu euskal gizartearentzat.




EAEko elektrizitate kontsumoa

15.692 GWh/urte

· Bertako ekoizpena



· Kanpoan ekoizitakoa




AZPEITIKO ENERGIA KONTSUMOA

Azpeitian urtean 110.000GWh/urteko kontsumitzen dira. Hortik %70a industriara bideratzen da; %16a zerbitzuetara eta %14a etxebizitzetara.



Azpeitiko energia kontsumoa

110 GWh/urte



Energia murriztu eta sortzeko proiektuak Azpeitian

Energia kontsumoa murriztu eta energia berriztagarrien sorkuntzarako pausoak ematen ari da azken urteotan udala. Udal eraikinetako efizientzia energetikoa hobetzeko hainbat proiektu gauzatu ditu eta energia sorkuntzarako plakak ere jarriak ditu hainbat eraikin publikotan dagoeneko; epe motzean beste batzuk ere jarriko ditu eta proiektu gehiago ere egiten ari da urratutako bideari jarraipena emanez, autokontsumorako saltoa emateko.

ENERGIA SORTZEN

• Igerilekua

Azpeitiko udal igerilekuen eraikinean energia berriztagarriak jartzeko proiektu aintzindariak jarri dira abian. Duela zenbait urte geotermia bidez, Sanjuandegiko ur beroaren aprobetxamendura proiektua egin zen eta eraikina C kalifikazio energetikoa izatetik B kalifikazio energetikoa izatera pasatu da. Ondoren, teilatuan 360 eguzki-panel jarri ziren. Bi jarduketa horien bidez, eraikinean %17,94 aurrezten da (313.875 KWh/urteko).

Epe motzean, Azoka Plazako eta Soreasuko eraikin publikoen teilatuetan ere eguzki-plakak jarriko ditu udalak



• Udaletxea

Udaletxeko teilatuan 129 eguzki-panel fotovoltaiko instalatu ziren iazko uztailean. 2021ko abuztuaren 1etik 2022ko uztailearen 31ra bitartean, udaletxeko eraikinak 109.430 KWh kontsumitu ditu, eta horietatik 49,736 KWh plaka fotovoltaikoetatik jasotakoak izan dira; plakak jartzean aurreikusitako potentzia sortu du. Beraz, udaletxean kontsumitu den argindarraren %45,45a lortu da energia berriztagarri horren bidez. Guzti horrekin aurreztutako berotegi efektuko gasen ixuria 15,80 TnCO₂/urteko da eta udaletxeko eraikinren kalifikazio energetikoa hobetu da, D mailatik C mailara pasatuz.



• LASTER ABIAN

• Azoka Plaza

Azokako eraikineko teilatuan 217 eguzki-panel fotovoltaiko instalatuko ditu epe motzean udalak. Instalazioaren potentzia maximoa 99,82 kWp-koa izango da. Azokako eraikinaren 2021. urteko elektrizitate kontsumoa 120.220 kWh-koa izan zen eta plaken bidez 98.962 kWh sortzea aurreikusten da. Beraz, kontsumituko den argindarraren %82,01a lortuko da energia berriztagarri horren bidez.

• Soreasu

Soreasuko teilatuan 219 eguzki-panel fotovoltaiko instalatuko dira eta instalazioaren potentzia maximoa 99.645 kWp-koa izango da. Soreasuko eraikinak 198.262 kWh (argindar) kontsumitu zuen 2021an, eta plaken bidez 107.806 kWh sortzea aurreikusten da. Beraz, Soreasun kontsumituko den argindarraren %54a lortuko da energia berriztagarri horren bidez.

• LED argiteria

Azken urteotan argiteria publikoa LED sistemara aldatzeko hainbat fase egin ditu udalak. Hala, 2018. urtearekin alderatuz, egun argiteria horren kontsumoa %20 jaitsi da. Gaur egun, argiteria publikoko hiru argi puntutatik bi LED sistemakoak dira, eta azken fasea gauzatzeko proiektua egina du udalak. 700.000€tik gorako aurrekontua du eta proiektua diru-laguntza deialdi batera aurkezteko prest dago.



Azpeitiarrak bere energia sortzetik gero eta gertuago

Ekindar energia kooperatibak 526 kooperatibista ditu, eta aurreikuspenen arabera, urtea bukatzeko eguzki-panelen proiektuaren obrak hasita izango dira

Beren energia sistema berriztagarrien bidez sortu nahi duten azpeitiarrek gero eta gertuago dute helburua Ekindar energia kooperatibarekin. Iazko abenduan aurkeztu zen egitasmoa herritarren artean, eta 526 bazkide eta lege baimen eta tramitazio guztiak eskuan, abenduan eguzki-plaken proiektua gauzatzen hasiko da.

Epe motzean, Azoka Plazako eta Soreasuko eraikin publikoen teilatuetan ere eguzki-plakak jarriko ditu udalak



Urriaren 26a data garrantzitsua izango da Ekindarrentzat. Kooperatiba eratu eta Kontseilu Erretorea osatzeko bazkideen lehen batzarra egin baitzuen. 300 bazkidetik gorak bete zuten Soreasu eta bertan gelditu zen herritarren esku, erakunde publikoak bazkide koraboratzaile izaten jarraituko badute ere, kooperatiba. Gaur egungo 526 bazkide erabiltzaileek kooperatibaren %70 osatuko dute; bazkide laguntzaileek, berriz, %30a.

Lehen Kontseilu Erretoreko kideak beren borondatez aurkeztutako Amaia de Castro, Jon Iñaki Arakistain, Mikel Bastida, Xabat Oregi eta Aitzol Iparragirrek, Azpeitiko Udalak eta Bertan merkatari elkarte bazkide laguntzaileak izango dira. Datozen bost urteetan lanean aritzeko konpromisoa azaldu zuten.

Energiaren berriztagarriaren tokiko sorkuntzan, eta kontsumitzaileak energia sortzaile bihurtzeko eredu aldaketaren baitan, pauso garrantzitsua da Ekindarren sorrera. Ekindar azpeitiarron energia kooperatibaren lehen proiektua Urrestillan, hektarea batean, 1,2 Gwh urteko sorkuntza duen parkea egingo da. Zehazki 545 wattioko 2.304 eguzki plaka ezarriko dira. Lurrek gainera, bi erabilera izango dituzte; alde batetik energia sortzeko gunea izango da; baina, bestetik, erletegi eta hazitegi funtzioak ere izango ditu. Hala, lurren erabilera bikoitza izango dute.

Ekindarren bidez, herritarrek beren ohiko bizilekuan behar duten energia beraiek sortuko dute eta energia etxean, merkatuko prezioa baino askoz baxuagoan eskuratuko dute. Energiaren arloan herritarrek ahalduntzea; energiaren merkatua demokratizatzea eta trantsio energetikoan eragitea dira proiektuaren helburuak, besteak beste.



Laburrean


PIASPE

Eredu berritzailea

Erakunde publikoak, herritarrak eta bertako enpresak proiektuaren parte eta jabe izanik norbere energia berriztagarria sortzeko aukera aztertzeko aukera ireki da. Norbere energia sortuaz, merkatuko prezioa baino baxuagoan eskuratu ahal izango litzateke energia berriztagarria.

Non?

Azpeitia, Zestoa eta Errezil artean. Arauntza eta Odria zelai inguruan.




Dimentsioa

Bost aresorgailuen bitartez 84,7GWh sortuko dituzte urteko. Azpeitia, Zestoa eta Errezilen urteko kontsumo elektrikoaren %60a inguru. 24.300 etxebizitzetara eta 96.900 pertsonentzako energia sor daitekeela aurreikusi dute.

Nolakoak izango dira aerosorgailuak?


Daitezkeen aerosorgailu handienak jartzeko tramitazioa hasi du. Gehienez, 205 m-ko altuera izango dute.



Potentzia = 6 – 7 MW

Bideak

Statkraft-ek adierazitakoaren arabera gauzatzeko behar diren bide gehienak (%91) dagoeneko eraikita daude. Enpresak zehaztutakoaren arabera, lehen eginda dauden bideak erabiliko dira 10,8 kilometroan eta 1,02 kilometro (%8,6) egin beharko dira.



Zein da proiektuak egin beharreko tramitazioa?

Udalak ez du eskumenik halako proiektu bat egiteko baimena eman edo ez erabakitzeko. Horrelako proiektuek udalaz gaindi, Eusko Jaurlaritzan eta Aldundian tramitatzen dituzte baimen eta betebeharrak guztiak

Epeak

Gaur egun aurre-lanketa fasean dago. Aurretiazko baimen administratiboa irailaren 23an eskatu, eta orain informazio publikoko epean dago. Epealdi horretan edozein enpresak aurkez dezake leku horretan haize errotak jartzeko eskaera. Baimen hori onartuta ere, Ingurumen inpaktu zein hegaztien eta faunaren txostena egiteaz gain haizea neurtu behar dute urtebeteko epean. Aurreikuspenen arabera, 2027. urtean jarriko litzateke abian.

Bideragarritasuna

Gaur gaurkoz proiektua egingo den ziurtasunik ez dago. Jarraitu beharreko prozedura luzea da. Ikusteko dago haizerik ba dagoen, ingurumen baldintzak beteko dituen edo Eusko Jaurlaritzak onartzeko duen. Lurralde Plan Sektorialarekin bateragarria den, besteak beste.

BURUZAI

Informazioa

Capital energy enpresak lau aresorgailuko parkea egin nahi du. Urriaren 20an eginiko bileran Capital Energy enpresak Azpeitiko Udalarari jakinarazi zion erroten kokapen probisionalak aldatu egin dituztela. Aldaketa horren ondorioz, errota horietako bat Azpeitian jarri dute, baina oraindik ere kokapenak probisionala izaten jarraitzen duela azpimarratu zuten enpresako ordezkariak. Azpeitiko Udalean enpresak ez du egitasmoari lotutako eskaerarik egin.

Zein fasetan dago proiektua?

Enpresak proiektuaren lanketarako, azterketak egiteko eta prozedura abian jartzeko izendapena eskuratua du. Dena den, tramitazioa hasierako fasean dago.

Eredua

Azpeitiko Udalak enpresari jabetza partekatu baterako aukeraz galdetu zion. Erantzunik ez du jaso oraindik.



www.azpeitia.eus

Etxebizitzetako efizientzia energetikoa, trantsizio energetikoa eta irisgarritasuna hobetzeko **udal laguntzak**

300.000€ herritarren etxebizitzetako
sistema energetikoak berritzeko eta energia
berriztagarriak ezartzeko